

# **Orientalismoa**

## **XIX. mendean: Ekialdea mendebaldetik**

**Haizea Barcenilla - Amaia Panizo**  
**EHUko Artearen Historia ikasleak**

## Sarrera

Orientalismoaren gaia aukeratu dugu, alde batetik, Islamaren mundua asko gustatzen zaigulako, eta bestalde, ez zaiolako normalean behar adina arreta eskaintzen, klasean lantzen ez delarik, esate baterako. Lan honen bitartez XIX. mendean Islamaren lurraldeek bizi zuten egoera islatu nahi izan dugu, honetarako informazio dokumentala zein artistikoa erabiliz. Honen bidez, konparazio bat egin nahi izan dugu, europarren mundu musulmanaren ikuspegia ikertuz. Enfasi handia jarri dugu europarrek mende honetan ekialdeko lurraldeetan izandako eraginean. Hala ere, batez ere erromantizismoaren ikuspegiaren zentratu gara, zeren Europako joera orokorra Islameko kultura aldatzea zen bitartean, erromantikoek bertako kultura mirestu eta mantendu nahi izan zuten nolabait haien lanen bidez.

Helburu hau lortzeko, atal artistikoa landu dugu, XIX. mendean garatu zen erromantizismoa aurkeztuz, eta orientalismo artistikoaren zergatiak eta honen garapena aztertuz. Azterketa horren ondorioz sailkapen berri bat eskaintzera ausartu gara, bibliografia anitzean eta gure ideietan oinarrituz.

## Orientalismoaren arrazoiak<sup>1</sup>

Orientalismoa jada XVI. mendetik nabari zitekeen mendebaldeko artean, Islamaren lurraldeekiko sortutako interesarekin, gurutzadekin... baina ez zen margogintzaren gai nagusietako bat bihurtu XIX. mendera arte. Izan ere, XIX. mendean, eta batez ere erromantizismoaren mugimenduaren barnean, asko errepresentatu zen gaia.

Baina hasteko, orientalismoaren arrazoiak aipatu beharrean gaude. Faktore ezberdinak egon ziren ekialdeko gaiei garrantzia ematen hasteko. Alde batetik, Ekialdeko Auziak garrantzi handia izan zuen. Inperio Otomandarren antolaketan eta banaketan sartutako europar herrialdeek, haien interes politikoak zirela-eta, ekialdeko lurraldeekin harreman zuzena izaten hasi ziren. Lehenengo aldiz, mendebaldeko biztanle asko, batez ere frantsesak, ekialdeko lurraldeetara bidaiatzen hasi ziren. Gero haien lurraldeetara itzultzen ziren kontakizun berri askorekin. Artista askok ere diplomatiko eta abenturazale hauen bidea jarraitu zuten, eta lekuan lekuko ohiturak ikusteko aukera izan zuten. Honela sortu zen ekialdearekiko zaletasuna. Aipatu behar da ere garai honetan, Europan, mistizismoa eta misterioa asko maite zituztela, eta lurralde islamiarrek kutsu hau zutela betidanik; gainera, emakumeen eta nomaden bizimoduak oso misterioitsuak zirela pentsatu zen eta haiekiko mito eta legenda asko sortu ziren, oso maitatuak izanik.

Aipatu beharreko beste faktore bat Napoleonekin hasitako konkista prozesua litzateke. Napoleon Egipto inbaditzen saiatu zen XVIII. mendearen azken urteetan; horrezkero, XIX. mendean zehar, kolonizazio eta inbasio ezberdinak burutu ziren Islamaren lurralde guztietan. Inbasio hauek ideia batekin burutzen ziren: mendebaldekoek ekialdea kulturizatzeke sentitzen zuten behar morala. Honekin batera, noski, lurralde berriak kontrolatzeko nahia zetorren. Baina kontrol horretaz gain mendebaldarrek musulmanak haien azpitik ikusten zituzten, garai horretako

---

<sup>1</sup> Clark (1990), Lemaïres (2001), Rolf (2000: 397-402) eta Hattstein, M. – Delius (2001: 586-591).

Darwinen eboluzioaren teoriari jarraituz, haiek baino kate-begi batzuk beherago zeudela pentsatuz. Beraz, "kulturizatu" nahi zituzten. Hala ere, bazen mendebaldeko talde bat lurralde eta ohitura berri hauek maite izan zituenen, eta hau erromantikoena izan zen. Alde batetik, primitibismoa, naturarekiko hurbiltasuna asko maite zuten, eta hau nabariagoa zen musulmanen artean Europan baino; exotismoak eta ekialdeko argiak ere erakartzen zituen. Horretaz gain, lurralde guzti hauetan egindako sarraskiak inpresionatuta utzi zituzten eta talde menperatuaren alde jarri ziren, lehen aipatu bezala, biktimekiko interes handia zabaldu zelako garai honetan. Gainera, berriro ere, kolonizazioak hasi zirenean, artista asko etorri ziren Europako kontsulekin lurralde berrien marrazkiak egitera, ez baitzen argazki kamera existitzen; horrezkero, artista askok ekialdearekin harreman zuzena izan zuten, eta gero eragin hau bere lurraldeetan zabaldu zuten, behin itzuli eta gero.

Orientalismoaren barruan guk hiru modu ezberdinak ditugu,<sup>2</sup> kronologikoki jarraipena dutenak eta orientalismoaren bidea hobeto ulertzen lagundu dezaketenak. Lehenengoari "Napoleonismoa" deitu diogu, honen batailak eta espedizioak irudikatzen dituelako. Honela, batez ere Egiptoko irudi bat ematen da, askotan manipulatu Napoleonen aintzarako. Talde honetan batez ere sarraskiak, batailak eta Napoleonen eginkizunak azalduko dira, ekialdearekin zuzenki lotuak. Arte mota honen adierazlerik nagusia Gros margolaria da.

Bigarrenik orientalismo idealizatuak dugu. Idealizazioa jotzen dutenak ez dira inoiz ekialdeko lurralde batetan egon; iturri literarioetan oinarritu ohi dira, batzutan lehen eskukoak, eta beste batzutan haiek ere idealizazioak direnak. Mistizismora eta misteriora jotzen dute. Gainera, irudi batzuk, adibidez *harema*rena, oso idealizatuak dauzkate eta asko errepresentatuko dituzte. Hauen buruzagia eta ordezkaria Ingres da.

Azkenik orientalismo errealista, orientalismoaren gailurra, izango genuke. Joera honek bere garapena batez ere Marokon eta Aljerian izan zuen, baina baita Egipton ere, kolonizazio ingelesarekin batera. Joera hau musulmanen bizimodua den bezala irudikatzean datza, kaleko eszenak, barruko eszenak, eguneroko irudiak eginez, baina beti oinarri erreal batetik joz; hau da, bertan egondakoek egindako lanak dira, idealizatu gabeak. Joera honen adierazle nagusia Delacroix dugu.

---

<sup>2</sup> Saikapen hau gure proposamena da. Iruditzen zaigu kronologikoki eta estiloa eta batez ere gaia ikertuz honelako ordenara iritsi daitekeela, eta lagungarria izan daitekeela orientalismoa ulertzeko orduan.

### a. "Napoleonismoa"<sup>3</sup>

Napoleonen konkisten irudikapena asko egin zen XIX. mendearen lehen laurdenean. Hau orientalismoaren lehen pausotzat har daiteke, baina ez benetako orientalismoztat. Izan ere, artista hauei interesatzen zitzaiena Napoleonen gudak eta batez ere garaipenak errepresentatzea zen, Napoleonen irudi idealizatua emanez, eta ez zioten ekialdeko bizimoduaren errepresentazioari hainbesteko garrantzia ematen, nahiz eta hau irudikatu.

Joera hau batez ere Frantzian garatu zen, bestalde logikoa den bezala, Napoleonen garaipenak errepresentatzen diren heinean. Honen konkista Egipton izan zen batez ere; 1797an hasi zen guda, eta 1802an bukatu zen, Piramideen Bataila eta gero frantsesek Egipto utzi behar izan zutenean. Kontutan hartzekoa da garai honetan, batailara zihoazenean, pintoreak eramaten zituztela beraiekin, gertatutakoaren berri eman zezaten, gaur egun kazetariak bidaltzen diren moduan. Honela, artista talde bat joan zen Napoleonekin Egiptora, haien burua Gros zelarik, geroago aipatuko duguna. Pintore hauek ematen zuten irudia ez zen irudi objektiboa, baizik eta glorifikatua, Napoleonen handitasuna azpimarratzeko, eta, izan ere, askotan gertakizun historikoak aldatzen ziren ere, bilatzen zen ideia lortzeko. Lehen aipatu bezala, Napoleonen gertakizunak ziren garrantzitsuak, eta ez bertako biztanleen bizimodua edo izaera. Dena den, paisaiei nolabaiteko garrantzia eman zitzaien, berriak eta erakargarriak zirelako. Napoleonen kanpainak ekarritako beste elementu bat Antzinako Egiptorekiko zaletasuna izan zen, Frantzian garai honetan asko zabandu zena. Eta, bestalde, aurreneko bidaiak ere bultzatu zituen, lehenengo Egiptora eta gero beste lekuetara, esate baterako, Istanbul edo Marokora. Honela gero etorriko den orientalismo beteari bidea irekiko zaio hein handi batean.

Napoleon irudikatze modu asko egon ziren, baina erabilienak borrokatzen eta garaitzen, antzinako monumentuen handitasunaren aurrean edo jende tartean dira. Honela, Napoleonen irudi glorifikatua ematen da, hau heroi bat bezala erakutsiz, eta batzutan ikonografia kristaura joz santu bat balitz bezala ere irudikatuz.

Egiptora joandako margolarien artean Antoine-Jean Gros (1771-1835) da aipagarriena: bera izan zen Napoleonen irudi bidezko kronista ofiziala. Grosek David maisu neoklasikoaren eskolan ikasi zuen, eta gero tailer honen burutza ere hartu zuen, David 1815ean Herbeheretara erbesteratu zenean. Grosekin tailerra izaera erromantikoa hartzen joan zen. Dena den, Gros oraindik prerromantiko bezala izendatu behar dugu, berak margotutako garaian, nahiz eta Frantzian jada sentikortasun erromantikoa ematen zen, hau ez zelako guztiz onartzen. Baina Grosek, bere teknikan eta joeretan, jada artista erromantikoaren ezaugarriak erakusten ditu. Adibidez, gudaren krudeltasuna adierazteko joera handia zuen, hau ezaugarri erromantikoa delarik. Aipagarria da, besteak beste, Grosek egindako "Jaffako izurrituak", lan honetan errealitate historikoa aldatzen delako: benetan gaixoei opioa eman zitzaien lehenago hil zitezenean; margoan aldiz, Napoleon sendatzaile gisa irudikatzen du, bertako jendearekiko ez zuen interes bat adierazi nahian, eta Napoleoni zentzu handi batean santu baten ezaugarri sendagilek emanez.

---

<sup>3</sup> Izen hau guk aplikatutakoa da, estilo honen deskribapena ematen duela iruditzen zaigulako.



*Jaffa*ko izurrituak, Antoine-Jean Gros, 1804

Lehen pausu hauen barruan aipatzekoa den beste pintore bat Denon da; berak ere Napoleonen kanpainetan parte hartu zuen, eta baita hauei buruzko memoria batzuk idatzi ere; behin Egiptotik itzulita, Nazaretheko bataila erakusten zuen koadroen lehiaketa bat antolatu zuen, Grosek irabazi zuena, eta Napoleonen garaitzak argi eta garbi glorifikatzen zituen. Honek Napoleonen inguruko gaiak sortu zuen irrika erakusten du.

Beste margolari aipagarri bat Vernet litzateke, jada guztiz erromantikoa, 1819an, hau da, Napoleonen erbesteratzea eta gero, oraindik gaia berreskuratu zuena Denonen memorietan oinarrituz, eta Napoleonen inguruko gaiak irudikatu zituenak. Honek ere erromantizismoak zuen heroiak bilatzeko joera erakusten du, hala nola Napoleonen eta Egiptoren gaiak urteetan zehar izan zuen garrantzia ere.

## b. Orientalismo idealizatua

XVIII. mendean jada orientalismoaren gaia literaturan jorratuko da. Lady Mary Wortley Montagu emakume ingelesak, esate baterako, Konstantinoplara bidaiaria egin eta bertan *harem* bat ezagutzeko aukera izan zuen, hainbat eskutitzetan honen berri eman zuelarik. Lord Byronek bere aldetik ere hainbat obra idatzi zituen ekialdea gaitzat hartuz.

Orientalismoak pintura erromantikoan izan zuen eragina aztertzerakoan, ekialdera inoiz bidaiatu ez zuten arren euren artelanetan ekialdeko mundua islatzen duten hainbat artista aurkitzen ditugu. Jadanik aipatu dugun bezala, artista erromantikoen artean mistizismo eta exotismoarekiko zaletasuna antzeman dezakegu eta Ekialdea paradisu debekatu gisa ikusten zuten. Multzo honetako artistak, aipatutako obra literarioetan ez ezik ekialdeko gaia landu zuten hainbat pintoreen lanetan ere oinarrituko dira, baina beti ere sortuko dituzten eszena eta imajinak euren irudimenaren fruitu izanik. Hau guztia kontuan hartuz, ez da zaila asmatzea artista hauengandik jasoko dugun ikuspegia ez dela batere errealista izango.

Ikuspegi irreal hau eskaintzen diguten artisten artean, bereziki interesgarria dugu Jean-Auguste Dominique Ingres (1780-1867) pintore frantziarra. Lehenengo eta behin, Ingresek bere burua neoklasikotzat jotzen zuela aipatu beharrean gaude. 1820-1830 bitarteko hamarkadan Frantzian neoklasizismo eta erromantizismoaren arteko benetako haustura gertatu zenean Ingres aurkituko dugu korrante neoklasikoaren buruan. Hala eta guztiz ere, Ingresengan neoklasizismoa estilo piktorikora mugatua geratzen dela esan dezakegu, erabiltzen dituen gaiak eta bere helburuak erromantikoak baitira. Hau guztia horrela izanik, Ingresen obran klasizismo erromantiko bat ematen dela esan dezakegu, Delacroixen erromantizismo koloretsutik eta Daviden klasizismo arrazional eta latzetik urruntzen delarik.<sup>4</sup> Gorabehera honen guztiaren inguruan Théophile Gautier idazle erromantikoak Ingresen obra defendatuz adierazten duena guztiz esanguratsua da. Gautier-en arabera "honek (Ingresen obrak) klasiko antza izan dezake azaleko ikusle baten begien aurrean, baina inolaz ere ez da hala".<sup>5</sup>



*Odaliska Handia*, Jean Auguste Dominique Ingres, 1814

<sup>4</sup> H.E (2000: 107).

<sup>5</sup> Ramírez (2000: 73).


Emakumeen gorputzek guztiz erakarri zuten Ingres eta formaren inguruko bere ikerketa emakumearen gorputzaren bidez gauzatu zuen. Emakumea behin eta berriro errepikatuko den elementua izango da eta ekialdeari lotuta aurkezten digu. *Haremaren* gaia maiz jorratu zuen exotismoz beteriko eszenak gauzatu. XIX. mende hasiera hartan, *harem* bat errepresentatzea biluziak askatasunez irudikatzeko aitzaki paregabea zela ere aipatu beharrekoa da. Burutuko dituen eszenetan atmosfera guztiz sentsuala izango da. Ekialdean inoiz egon ez bazen ere, bere kideei bertako objektuak uzteko eskatzen zien eta era honetan girotze aproposa lortu ohi zuen. Era berean aipatzekoak dira garaian guztiz eskandalagarriak suertatu ziren zenbait lanetan azaltzen diren konnotazio erotikoak. Ekialdeko mundua gaitzat duten Ingresen artelanen artean aipatzekoak dira besteak beste; "*Haremaren barruan*", "*Odaliska handia*", "*Valpiçongo bainularia*", "*Odaliska esklabuarekin*".



*Odaliska esklabuarekin*, Jean Auguste Dominique Ingres, 1839

Ingres bere bizitza osoan zehar gaztaroko obsesioekin jarraitu zuen eta honen adierazle argia dugu 1863an, bere zahartzaroan jada, burutu zuen "*Bainu Turkiarra*" izeneko lan ospetsua. Lady Mary Wortley Montaguk zera adierazi zuen Konstantinoplako emakumeentzako bainu publikoak bisitatu ondoren: "Edertasun handiko eta azal zuriko berrehun bat emakume biluzi zeuden bertan, nagitsu, elkarrizketaz edo bainuaz gozaten zuten edota ihutika ibiltzen ziren". Hala bada, ez da zaila emakume ingeles honen idatziak Ingresen lan honen inspirazio iturri izan zirela asmatzea. Lan honetan Ingresek mundu irreal eta fantastiko bat erakusten digu. Lerro bihurria, antiakademikoa, erabiltzen du emakumeen gorputz biluzietan eta era honetan sentsualtasuna azpimarratzen da. Bestaldetik, kolore hotzen erabilpenak ikuslea obratik urruntzea ahalbidetzen du eta era honetan artelanaren izaera lizuna nolabait baretzen da.<sup>6</sup>

<sup>6</sup> Ramírez (2000: 71).



*Bainu Turkiarra*. Jean August Dominique Ingres, 1863



### c. Orientalismo errealista

Islamiar lurraldeetan konkistek eta kolonialismoak aurrera egiten zuten heinean, exotismoak, argiak eta bizimodu primitiboak bultzatuta bertara bidaiatuko duten artisten kopurua geroz eta handiagoa izango da.



*Kairoko ziutadela*, Louis Hagheren litografia, David Robertsen akuarela batetan oinarrituta, 1838-39.

Denbora pasa ahala Maroko eta Aljeria artista kopuru handiena jasoko duten lurraldeak izango diren arren, lehen urratsak Egiptorantz zuzendu ziren. Honen arrazoia, alde batetik frantziarrek Napoleonekin eta bestetik ingelesek bertan ezarritako protektoratuarekin bidea ireki izana izango genuke. Egiptoren garaikidetasuna margotu zuen lehena Ippolito Caffi izan zen. Era berean, azpimarratu beharrekoak dira David Roberts, batez ere bertako monumentuak irudikatu zituen, eta Müller ingelesa, "Kairoko bazaara" artelanean ikusi dezakegun bezala Egiptoko eguneroko bizitza fideltasunez errepresentatu zuena. Artista hauen lanek ospe handia izan zuten eta honek baldintzatu zuen Egiptora bidaiatu zuten artisten kopurua nabarmenki haztea.



*Kairoko bazaara*, William James Müller, 1843.

Hainbat artistek egin zituzten Istanbulerako errepresentazioek ere aipamen bat merezi dute. Orokorrean esan dezakegu, artistak nahiko goiz bidaiatu zutela Istanbulera –David Wilkie esate baterako 1828rako jadanik Istanbulen zengainontzeko lurralde islamiarrak baino eskuragarriagoa zelako. Bestetik, gogoratu behar dugu, Europarrak bertan aritu zirela mende hasieratik mendebaldartzea bultzatzeko presioa eginez. Eta hala, Istanbulera joan ziren kontsul eta eskoletan, zein armadan irakatsiko zuten maisu berriekin batera, margolariak ere joan ziren bertara. Aipatzekoa da, zenbait kasutan otomandarrek beraiek eskatu zutela margolari hauen etorrera mendebaldeko pintura euren kulturari integratu nahi zutelako. Adierazgarria da, adibidez, Guillaumet-ek “Académie de Peinture et Dessin” izeneko margogintza akademia sortu zuela bertan eta honetatik Sarkis Direnyam edota Seker Ahmed Pasha bezalako pintore otomandar ospetsuak atera zirela. Istanbulerako populazioan Europarren kopuruak gora egin zuen etengabe eta ondorioz bertako exotismoa pixkanaka murrizten joan zen eta margolariak beste norabide batzuk hartu zituzten.

Greziako kasua ere aipatu beharrean gaude, ezin baitezakegu ahaztu Grezia inperio Otomandarren menpean egon zela mendeetan zehar. Ondorioz lurralde honek ere europarrak erakarri zituen. Neoklasikoek edertasun osoa antzinateko Grezian aurkitzen zuten bitartean erromantikoentzat askatasuna lortu nahian zebilen Grezia garaikidean zegoen benetako interesa. Hala bada, nazionalismoa goren zuten erromantiko haiek greziar kausarekin bat egin zuten. Baina, era berean, aipatu

beharra dago, greziarrek askatasuna lortu eta Europarekin bat egin zuen momentutik artistek lurralde honekiko zuten interesa galdu egin zutela.

Magrebaren ikuspegi errealista bat eskaintzen diguten errepresentazioak garrantzitsuak izateaz gain, hauek oso ugariak izan zirela esan dezakegu. Izan ere, eta gerora aipatuko duguna aurreratuz, orientalismoaren sustatzaile nagusia izan zen Delacroix-ek bertara egin zuen bidaia. Frantziarrak mediterraneoko hegoaldean protektoratu bat inposatu nahian aritu ziren denbora luzez eta 1830an Aljeria inbaditzea lortu zuten. Tropekin batera, Europarrek euren nagusitasuna inposatu zuten, gainontzeko lurraldeetan gertatu zen moduan. Hainbat margolari joan ziren Aljeriara eta hauen artean aurkitzen dugu adibidez Isabey. Aljeriarren erresistentziak 1847. urtea arte iraun zuen, eta gatazka sasoi hauetan lurralde honetara bidaliak izan ziren frantziar tropekin batera geroz eta artista gehiagok bidaiatu zuen. 1840. urte inguruan esate baterako, Dauzats margolaria joan zen Aljeriara Orleaneko dukearen armadarekin batera. Dauzatsek hainbat akuarelen bidez bertako bizimodua eta monumentuak islatuko zituen eta akuarela hauetako batzuk 1841eko saloian erakutsi ziren Parisen. Hala ere, ekialdearen ikuspegi errealista bat eskaintzen diguten artista guztien gainera Delacroix azpimarratu behar dugu zalantzarik gabe.

Eugene Delacroix (1798-1863) Frantziako erromantizismoaren gailurra kontsidera dezakegu, bere obraren ezaugarri azpimarragarrienak sentimenduen espresio goren eta koloretasuna izango genituzkeelarik. Bestetik, aipatu beharra dago Delacroixek ekialdearen inguruko gai asko landu zituela eta berari esker zabaldu zela batez ere orientalismoa Europa osoan zehar.

Delacroixek ekialdearekiko interesa erakutsi zuen hasieratik eta beste hainbat artistak bezala Lord Byronen idatziak ezagutu eta miretsi zituen. Hau horrela izanik, hasiera batean nolabait ekialdeari buruzko ideia idealizatu bat izan zuela esan genezake "Quios-eko sarraskia", "Grezia Missolonghiko aurrietan" edota "Sardanápaloren heriotza" bezalako lanetan ikus dezakegun bezala.

Hala ere, 1832. urtean Frantziako kontsularekin batera, Charles Edgar de Mornay-rekin batera alegia, Marokora bidaia egin zuenean orientalismoa bete-betean sartzen da Delacroixen obran. Une hau klabea izango da bai Delacroixen obra aztertzeko eta baita orientalismoak izan zuen garapena ulertzeko. Marokok benetan harrিতuta utzi zuen Delacroix, eta "...leku hau margolarientzako asmatua dago: hemen dago benetako edertasun, ez modako lanetan agertzen den edertasun artifizialean" edota "sublimea hemen nonahi dago" bezalako aipuak egin zituen.<sup>7</sup>

---

<sup>7</sup> Lemaire (2001: 211).



*Emakume arabiarak exerita* (Aljeriako emakumeentzako zirriborroa)  
Eugene Delacroix, 1832

Delacroixek bertan primitibismoaren adierazpena aurkitu zuen. Gizaki eta naturaren arteko lotura estua zuen mundu bat ezagutu zuen. Neoklasikoek benetako edertasuna Grezian eta Erroman ikusi zuten bitartean, Delacroixek ekialdean bizirik ikusiko zuen antzinatea. *Souvenirs d'un voyage dans le Maroc* liburuan adierazi zuenez: "Erroma jada ez dago Erroman... erromatarak eta greziarrak hemen daude nire atarian; Daviden konposizioetako greziarretaz barre egitea ezin izan dut eragotzi... hemen ezagutu ditudalako."



*Aljeriako emakumeak*, Eugène Delacroix, 1834

Delacroixek erabilitako teknikari dagokionez esan beharra dago, Marokon, akuarelaz eginiko zirriborroz bete zituela zazpi koadernotxo. Frantziara itzuli zenean Marokon hartutako ohar hauek guztiak erabili zituen behin betiko lanak burutzeko. Aipatzekoa da, akuarelaz eginiko zirriborroetan kolore errealei buruzko oharak ere hartu zituela eta ondorioz Delacroixek kolorez beteriko konposizioak gauzatu zituen. Beti bere esperientzian eta gai errealetan oinarritu zen eta ikuspegi errealista bat eskaintzen digu "Aljerreko emakumeak", "Marokoarren ariketa militarra" ... bezalako lanetan. Delacroixekin orientalismoari eman ziztaion bultzada benetan handia izan zen eta bere obrak eragina izan zuen artista askorengan.



*Ariketa militarra Marokon, Eugène Delacroix, 1847*

Amaiera gisa aipatuko dugu, mendearen erdialdean orientalismoak indarra galduko zuen arren, hainbat artistarengan ekialdearekiko jakinminak oraindik bizirik iraungo zuela. Honen adibide argia dugu Guillaumet, zeinak 1863an espedizio bat antolatu zuen Magrebera bertatik margo ugari ekarriz. Adierazgarria da, era berean, oraindik ere Matisse, Manet edota Renoir bezalako artista inpresionisten lehen

lanetan, Japonia eta Txinarekiko zaletasuna hauengan piztu aurretik jada, orientalismoari arreta berezia eskaintzen zitzaiola.



*Arratsaldeko otoizlaria Saharan, Gustave Guillaumet, 1863*

## Ondorioak

Lan hau egiterakoan konturatu gara Islameko lurraldeen historia oso aberatsa dela. Arteari dagokionean, iruditu zaigu orientalismoaren gaia oraindik asko lantzeke dagoela. Bibliografia zehatza oso eskasa da, eta bibliografia orokorra sailkatu beharra dago gai hau landu ahal izateko. Baina aldi berean honek izan duen alde ona ikusi dugu, aukera eman digulako interesgarriak iruditzen zaizkigun hainbat ondorio propioetara iristeko.

Hasteko, orientalismoaren garapenean baliagarria izan daitekeen sailkapen bat proposatzera ausartu gara, artelanak, gaiak, iturri literarioak eta garapen kronologikoa aztertu ondoren. Jadanik aipatu bezala, hiru aldi desberdinak ditugu: "Napoleonismoa", "Orientalismo idealizatua" eta "Orientalismo errealista". "Napoleonismo" bezala izendatu dugun garaia beste biei atek ireki zizkien, eta orientalismo errealista Europan garatu zen orientalismoaren gailurra litzateke. Guk sailkapen hau aurkezten dugu, baina edozein kritika arrazoitara irekiak gaude.

Bigarren ondorio bat historia eta artearen artean dagoen desberdintasuna litzateke: historian europarren eragina handia eta argia iruditzen zaigu, Islameko izaera aldatu nahian teoria eboluzionistetan sinetsiz; arteak, aldiz, bertako izaera islatu nahi izan zuen, Europako eraginik erakutsi nahi gabe.

Bestetik, orientalismo errealistan ikusi dugu, eguneroko bizitza islatzen duen arren, arazo politikoak baztertzeko zituela. Uste dugu hau izan daitekeela erromantikoen errealitatek ihes egiteko zuten joeratik, ekialdean mundu liluragarri bat aurkitzera bultzatu zituenak. Mundu honen arazoak baztertu nahi izan zituzten, garbia mantenduz; honezkero, esan dezakegu errealista dela joera hau, errealitateko ekintzak erakusten dituelako, baina idealizazio kutsu bat ere baduela, arte erromantiko guztiak bezala, hainbat gertaera baztertzeko dituen heinean.

Dena den, aipagarria da zein irudi ezberdin ematen duten garai bakoitzean: hau da, Napoleonen garaian konkista argi eta garbi erakusten den bitartean, Delacroixek eta garai horretan Aljeriara bidaiatu zuten artistek ez zuten inbasioaren alderdia aztertu nahi izan, hau bizitza errealitatek baztertzeko; honela, gure ustez, erakusten da arteak historia islatzeko duen gaitasuna, zeren Napoleonen inbasio irekia, sutsua eta komentatua izan zen bitartean, Aljeriakoa berriz ez zen konkista bat bezala planteatu, baizik eta kulturizatze bat balitz bezala, eta europarrek horretarako zuten eskubidea aldarrikatuz. Bi konkisten izaera ezberdina artean ere modu ezberdinetan irudikatzen da beraz.

Azkenik, esan behar dugu gure helburua konparaketa bat egitea zela, eta horretan ikusi dugu europarrek Islameko lurraldeei buruz erakusten zutena, nahiz eta guk orientalismo errealista deitu beste bi joerekin konparatuz, ez zela orokorrean gertatzen ari zena. Orientalismo errealistak errealitateko irudiak egiten zituen, baina beti europarren eraginaren ondorioak islatu gabe (gudak, altxamenduak...). Honela, Europa iritsi zen irudia erreala bai, baina aldi berean nolabait zatikatua zegoen, hau da, alderdi batzuk ez zituzten errepresentatzen. Beraz, Europako ekialdeko irudia eta ekialdeko benetako giza egoera ez zetozen guztiz bat. Desberdintasun honen zergatia izan daiteke, beste batzuen artean, europarrek Islamaren gainean zuten ikuspegi nagusia exotismoak baldintzatua zela, eta honegatik artista, baldintza

honen menpe zegoen heinean, bestelako ikuspegiak bazterten zituela; adibidez, Europako eragina.

### Bibliografia

- Clark, K. (1990): *La rebelión romántica*, Alianza, Madril.  
H.E (2000): *Historia Universal del Arte. Del Romanticismo al Modernismo*, 9. bol., Espasa-Calpe, Madril.  
Hattstein, M. – Delius, P. (2001): *El Islam: Arte y Arquitectura*, Könemann, Kolonia.  
Honour, H. (1981): *Romanticismo*, Alianza, Madril.  
Lemaires, G. G. (2001): *The Orient in Western Art*, Könemann, Kolonia.  
Ramírez, J.A. (zuz.) (2000): *Historia del arte. El mundo contemporáneo*. Alianza, Madril.  
Toman, Rolf (2000): *Neoclasicismo y Romanticismo*, Könemann, Kolonia.

### Irudiak

Lemaires, G.G. (2001): *The Orient in Western Art*, Könemann, Kolonia.

<http://www.ibiblio.org/wm/paint/auth/delacroix/>

<http://www.artchive.com/artchive/D/delacroix.html#images>

<http://www.ibiblio.org/wm/paint/auth/ingres/>

<http://www.primenet.com/~byoder/artofji/htm>

<http://www.artchive.com/artchive/i/ingres/>